



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 23a

134. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordu-tranpei” buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Cop26 konferentziaren emaitzei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea arau bidez garatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurriei buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, emakumeen aurkako ziber-indarkeriazko kasuak areagotzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarbide-El Camino de los Navarros enpresa publikoa abian jartzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak izan arren Iruñeko Udala ematen ari den gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, zahar-etxe eta eguneko zentron esparru-akordio berriaren lizitazioari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontuetan Gares Energia proiektuarendako 550.000 euroko zuzenketa bat gehitzea EH Bildu Nafarroarekin adosteko arrazoiei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzaren planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, gure erkidegoko Justiziaren independentziari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nasuvinsak Iruñean burutu beharreko jarduketaren guztien egoerari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen erantzukizuneko eta espezifikotasuneko osagarriari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (10. or.).
- Galdera, osasun-sistema nazionala leheneratu eta despribatizatzeko Diputatuen Kongresuan aurkeztu den legegintzako herri-ekimenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren intzidentziaren gorakada dela-eta ezarriko diren neurriei buruzkoa. Ana Ansa Ascunce andreak egin du (12. or.).
- Galdera, lehen kontsultako itxarote-zerrenden datuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, sexu-indarkeriko egeorak prebenitzeari eta artatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (13. or.).
- Galdera, indarkeria matxistari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordu-tranpei” buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordu-tranpei” buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Polizia kidegoek egindako hitzordu-tranpen arrazismoa dela-eta egindako salaketak ikusita, kontseilariak ba al daki Nafarroan edozein polizia kidegorendako jarraibideren bat ote dagoen, legez kanpoko jardun hori errazten duenik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Cop26 konferentziaren emaitzei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak Cop26 konferentziaren emaitzei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Cop26 konferentziaren emaitzak direla-eta?

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden aurrekontu-betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu partiden 2021eko aurrekontu-betetzea? Zer balorazio egiten duzu horri buruz?

Iruñean, 2021eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea arau bidez garatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea arau bidez garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean aldiro aipatzen da legea erregelamendu bidez garatuko dela; halatan, foru lege horretan aurreikusten diren parte-hartze tresna edo mota eta eskubide

asko zehaztu egin beharra dago, izan beharreko segurtasun juridikoa izan dezaten eta behar bezala aplikatu ahal izan daitezen.

2020ko otsailaren 17an abiarazi zen foru dekretua taxutu aurreko aldeko aurreko galdeketa publikoaren proposamena, eta 2020ko ekainaren 24ra bitarte paratu zen jendaurrean. Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian ageri denaren arabera, ez zen ekarpenik egin. Harrezkero, ez da jasota ageri Nafarroako Gobernuak inolako ekimenik abiarazi duenik dekretu hori taxutzeari begira.

Galdera idatzi bati emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuak dio abian dela “2020ko ekainaz geroztik foru dekretuaren proiektuaren barne-lanketa bat”, baina pandemia dela medio eta lehenbaita berriak ezarri direnez –esaterako, Gobernu Irekiari buruzko Plan Estrategiko bat prestatzea– “ez dela eman nahi adina aurrerapausorik”.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Legegintzaldia abiarazi zenetik bi urte eta erdi igarota, Nafarroako Gobernuak ba al du egiazko borondaterik Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea arau bidez garatzeko eta bere osoan lehenbaita aplikatu ahal izateko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurriei buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurriei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inmaculada Jurio Macayak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

Galdera, emakumeen aurkako ziber-indarkeriazko kasuak areagotzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak emakumeen aurkako ziber-indarkeriazko kasuak areagotzeari buruz aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak azaroaren 25eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarrak kezkatuta daude emakumeen aurkako ziber-indarkeriazko kasuak areagotzen ari direlako. Gobernuak zer neurri aurreikusten du abiaraztea gure gizartean bizi dugun arazo horri aurre egiteko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Nafarbide-El Camino de los Navarros enpresa publikoa abian jartzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarbide-El Camino de los Navarros enpresa publikoa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du abiaraztea Nafarbide-El Camino de los Navarros enpresa publiko berria?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak izan arren Iruñeko Udala ematen ari den gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak izan arren Iruñeko Udala ematen ari den gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak Iruñeari hiriburutza agiria kentzen dionean, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren arabera Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak izan arren Iruñeko Udala ematen ari den gizarte zerbitzuak finantzatuko al ditu?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, zahar-etxe eta eguneko zentroen esparru-akordio berriaren lizitazioari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, zahar-etxe eta eguneko zentroen esparru-akordio berriaren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilariak zer egunetan aurreikusten du aterako dela lizitaziora zahar-etxe eta eguneko zentroen esparru-akordio berria?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako aurrekontuetan Gares Energia proiektuarendako 550.000 euroko zuzenketa bat gehitzea EH Bildu Nafarroarekin adosteko arrazoiei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontuetan Gares Energia proiektuarendako 550.000 euroko zuzenketa bat gehitzea EH Bildu Nafarroarekin adosteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak zer arrazoi darabil EH Bildu Nafarroarekin adosteko Nafarroako aurrekontuetan Gares Energia proiektuarendako 550.000 euroko zuzenketa bat gehitzea, horrek Nafarroako gainontzeko toki entitateak diskriminatzen baititu?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzaren planari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak Oinarrizko Osasun Laguntzaren planari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, profesionalek nahiz herritarrek Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzari dagokionez adierazten duten haserrea konponduko al du Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Plan iragarri berri horrek?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, gure erkidegoko Justiziaren independentziari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, gure erkidegoko Justiziaren independentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garridok honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, gure herriko botere betearazleko kideek botere judizialaren erabakiei buruz egin berri dituzten adierazpenek lagundu egiten al dute nafarrek pentsa dezaten gure erkidegoan badela justizia independente bat?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nasuvinsak Iruñean burutu beharreko jarduketa guztien egoerari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak Nasuvinsak Iruñean burutu beharreko jarduketa guztien egoerari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak datorren ostegunean, azaroaren 25eko Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Aste honetan bertan, Iruñeko Udalean Erriparen inguruko eztabaida piztu zen, ezbaian jarrita Nasuvinsaren jarrera, enpresa publikoak benetan duen interesari dagokionez, hiriburuko auzoetan proiektatutako 310 etxebizitzak gauzatzerakoan, haietan sartuta Erripagainako erripan garatu beharreko 90ak.

Sortu den eztabaidaren aurrean eta gaia argitzeko asmoz, honako hau galdetzen dugu, zuzenean:

Zein egoeratan daude Nasuvinsak Iruñean burutu beharreko jarduketa guztiak, Erripagainako erripan proposatutako 90 etxebizitzak barne?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen erantzukizuneko eta espezifikotasuneko osagarriari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen erantzukizuneko eta espezifikotasuneko osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariorde eta Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak azaroaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2010tik aurrera SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen lanpostuaren erantzukizuneko eta espezifikotasuneko osagarria murriztuz joan da, %34,5etik % 19,52raino. Osagarria 90eko hamarkadan aitortu zen. Garatzen

duten eginkizuna funtsezkoa da gure gizartearentzat, eta hala frogatu da pandemian zehar.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Zein urrats eginen ditu zure Departamentuak SOS Nafarroako koordinazioko operadore lagun-

tzailleek lanpostuaren erantzukizuneko eta espezifikotasuneko osagarria dela-eta pairatzen duten egoerari amaiera emateko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, osasun-sistema nazionala leheneratu eta desprivatizatzekeo Diputatuen Kongresuan aurkeztu den legegintzako herri-ekimenari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, osasun-sistema nazionala leheneratu eta desprivatizatzekeo Diputatuen Kongresuan aurkeztu den legegintzako herri-ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ostegunea, 2021eko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 90. artikulua ezartzen du osasun administrazioek beren osasun-baliabideak modu optimoan baliatu behar dituztela, osasun-sistema pribatuarekin hitzarmena egin aitzin.

Testuinguru honetan, osasungintza publikoa ahultzearen truke aberasten ari da kapital pribatua. Izan ere, osasungintza pribatuarekiko gero eta hitzarmen gehiago ari dira egiten estatuan.

Nafarroan, zehazki, berrezarpen-tasetako murrizketa bortitzen eraginez, ezin izan da lan-eskaintza publikorik egin osasun arloan, igo egin

da behin-behinekotasuna eta eragotzi egin da lanbide-profil berriko lanpostu berriak sortzea. Halere, zailtasunak zailtasun, O-NOZek herritarren osasun arloko beharrian eta erronka berriei erantzuten jakin du, langile finkoen nahiz aldi baterakoek profesionaltasunari eta konpromisoari esker.

Orain dela egun batzuk, Kongresuko Mahaiak legegintzako herri-ekimen bat onartu zuen –"osasun-sistema nazionala leheneratu eta desprivatizatzekeo"– izapidetzeko (500.000 sinadura bildu beharko dira).

Osasun-sistema nazionala leheneratzeko lege proposamen horrek Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean funtsezko honako alderdi hauek aldatzea jasotzen du:

– Pertsona guztientzako osasun-laguntza, horien egoera administratiboa zein ere den.

– Lege pribatizatzaileak indargabetzea eta pribatizatu diren zentroak berreskuratzea.

– Farmaziako eta osasun-produktuen sistema publiko bat sortzea, multinazionalakiko mendekotasuna ekiditeko.

– Oinarrizko Osasun Laguntza leheneratzea eta indartzea.

– Sektore publikoko zahar-etxeetako osasun-laguntza.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra autonomia erkidego guztiek –baita Nafarroako Foru Komunitateak ere– bete beharreko oinarrizko araua denez, Nafarroako Gobernuak zer iritzi dio Osasun-sistema Nazionala leheneratzearen Diputatuen Kongresuan aurkeztu den legegintzako herri-ekimenaren edukuari?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, COVID-19aren intzidentziaren gorakada dela-eta ezarriko diren neurriei buruzkoa.

ANA ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Ansa Ascunce andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren intzidentziaren gorakada dela-eta ezarriko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak datorren ostegunean, azaroaren 25eko Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Txertatze-tasa handi-handia izan arren, Nafarroak COVID-19aren kasu berriak pilatzen jarraitzen du, intzidentzia eta positibotasun-tasa gora egiten ari baitira. Joera horrek bere horretan dirau azken egunotan, laster heldu diren jaiegunen atarian.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari:

Babes indibidualari buruzko gomendioez harago, zer neurri eta zer egutegi ezarriko dituzue?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, lehen kontsultako itxarote-zerrenden datuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, lehen kontsultako itxarote-zerrenden datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola esplikatzen duzu Nafarroak lehen kontsultako itxarote-zerrendetan datu historikorik okerrenak eduki izana urrian?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, sexu-indarkeriko egeorak prebenitzeari eta artatzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, sexu-indarkeriko egeorak prebenitzeari eta artatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko hona-

ko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Genero-indarkeriaren biktime izan diren emakumeei egindako urgentziazko esku-hartze psikologikoak 195 izatera iritsi dira orain arte aurten. Datuek erakusten dutenez, gainera, emakume horiek gero eta gazteagoak dira. Aurten, orain arte, emakume horien % 51 30 urtetik beheetikoak ziren.

Beste datu kezagarri bat da bikoiztu egin direla sexu-indarkeria kasuetako jarduketak. Izan ere, sexu-abusuen eta -erasoen biktime bi heren adingabeak dira. Nafarroan irailera bitarte salutatuko 59 kasuetatik 40tan, biktimek 18 urtetik beheetikoak ziren, Foruzaingoaren esanetan.

Horregatik guztiagatik, parlamentari naizen honek haxe galdetzen dut:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du eta zer baliabide dauka halako egoerak prebenitzeko eta artatzeko?

Foru Parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, indarkeria matxistari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, indarkeria matxistari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2021eko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Gizarte gisa dugun defizit demokratiko nagusietako bat da indarkeria matxista. Horren prebentzioa eta erauzketa administrazio publikoek eta herritarrek batera joratu behar dute. Zure Gobernuak nola egiten dio aurre erantzukizun hain mingarri horri?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Patricia Fanlo Mateo andreak Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruz aurkezturiko galdera Osoko Bilkuran izapidetu dadin. Galdera 2021eko

azaroaren 10eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00413).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

